



**BERMEOKO UDALEKO KALITATE INSTITUZIONALERAKO KONPROMISO, JOKABIDE
ETA GOBERNU ONERAKO KODEA**

2024ko ekaina

SARRERA

Euskal politika, neurri handi batean, sortutako eta zabaldutako gizartearen isla da. Euskal herriak eta herriaren ordezkari instituzionalek, tradizioz, lanean balio eta printzipio jakin batzuk izan dituzte, besteak beste: erantzukizuna, zuzentasuna, leialtasuna, herritarrei zerbitzu publikoa eskaintzeko borondatea eta zereginak zorrotz betetzea. Balio horiei gehitu zaizkie, duela gutxi, elkartasuna, berrikuntza, errespetua eta tolerantzia.

Bermeoko Udalak, biztanleen hur, kudeaketa publikoa sendotu du, kudeaketa moderno eta eraginkorraren eta kalitatezko zerbitzu publikoen alde apustu eginez. Tokiko esparrua ekintza politikorako estrategikoa da, eta ezinbestekoa da giro egokia sortzea, herritarrei dauzkaten eskubideak erabiltzen eta garapen pertsonal, ekonomiko eta soziala bideratzen laguntzeko.

Udala kudeatzeko aukeratutako kargudunen zeregina funtsezkoa da sistema demokratikoak egoki funtziona dezan, herritarren hurren daudelako. Hori dela eta, ezinbestekoa da kargudun horiek erantzukizunez, gizarteari zerbitzatzeko borondatez, gardentasunez eta eraginkortasunez lan egitea eta funtzio publikoetan arduraldi osoan aritzea. Jarduera publikoan aritzeko ez da nahikoa karguari dagozkion zereginak betetzea; horrez gain, jokabidea moldatu beharra dago, estandarrak arlo publikoan lan egiten ez dutenenak baino zorrotzagoak baitira.

Kontuan hartu behar da, halaber, tokiko administrazioa asko aldatu dela azken urteetan. Izan ere, agertoki ekonomiko eta sozialak aldakorrak direnez, tokiko sektore publikoa etengabe garatu da. Orobat, berrikuntza teknologikoen ondorioz, kudeaketarako eta herritarrekin harremanak izateko tresnak asko aldatu dira; ondorioz, kargu publikodunen jarduera bera ere aldatu egin da.

2013an EUDELe egindako dokumentua eredutzat hartuta, etika- eta jokabide-kodeen arloko beste jardunbide on batzuk aztertu ditugu, besteak beste, Bilboko Udaleko Jokabideari, Gobernu Onari eta Kalitate Institutuzionalarekiko konpromisoari buruzko Kodea (Bilboko osoko bilkurak 2015eko azaroaren 24an onartua eta 2017ko maiatzaren 25ean aldatua) eta FEMPe 2015eko martxoaren 24an onartutako Tokiko Gobernu Onaren Kodea. Hala, EUDELen dokumentua osatu dugu garrantzitsutzat hartutako gaiekin, zuzentasunaren bitartez eredugarritasuna sustatzeko, erakundearen irudia zaintzeko, eraginkortasuna areagotzeko eta herritarrek Udalarengan duten konfiantzari eusteko.

Aurkeztu dugun dokumentu hau "kode ireki" bat da, aldian-aldian edukia berraztertu baitaiteke, azalpenak hobetzeko eta, gizartearen bilakaerari eta eskakizunei jarraikiz, portaera edo jokabide gehiago sartzeko; hori, zuzentasunari eustea aldera eta, era horretan, bermeotarrek Udalarengan duten konfiantza sendotze aldera.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako printzipioak ere hartu ditugu aintzat Jokabide Kodea idazteko, aplikatzerakoan legearekin bat etor dadin.

Testuari atxikiz gero, aurreikuspenak hausten dituenak betebeharrak izango ditu. Azkenik, Bermeoko Udalaren Etika eta Gobernu Onaren Batzordea sortu dugu. Batzorde horren zereginak dira Kodea koordinatzea eta segimendua egitea, edukia betetzen dela ziurtatzea eta ez betetzeak zer ondorio dituen zehaztea.

I.- BERMEOKO UDALAN JARDUERA PUBLIKOAK GAUZATZEKO JOKABIDE KODEA

Jokabide Kodearen helburuak

Jokabide Kode honen helburu nagusia da Bermeoko Udalan ordezkari politikoei eta, hala badagokio, Udalaren erakunde instrumentaletako goi-zuzendaritzako kontratuetako titularrek bete behar dituzten jokabide-printzipio eta -estandarrak zehaztea.

Tresna bizi eta malgua da, eta, beraz, aldatu, moldatu eta zuzendu daiteke, Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak egindako aholku eta proposamenei jarraikiz.

Jokabide Kodearen hartzaileak

Jokabide-printzipioei, jokabide-estandarrei eta gobernu onaren printzipioei buruzko atalak bete behar dituzte, batetik, Bermeoko Udaleko ordezkari politikoei; bestetik, Udalaren erakunde instrumentaletako goi-zuzendaritzako kontratuetako titularrek (etorkizunean egon daitezkeenak).

Dokumentu honetako III. atala, "Bermeoko Udalan kalitate instituzionaleko politika gauzatzeko erantzukizunak eta konpromisoak", ordezkari politikoei bete beharko dute. Alde horretatik, gobernu-taldeak eta Udaleko gainerako talde politikoei konpromiso bereziak izango dituzte.

Jokabide Kodearen izaera

Kode honetako arau etiko eta jokabidezkoak aurreko atalean aipatu hartzaileek bete beharko dituzte.

Egiaztatuz gero, frogatzeko moduan eta entzunaldia eman ostean, arau horiek ez dituztela bete edo ez dituztela behar bezala bete, Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak txosten arrazoitu eta zehatza egingo du eta, txosten horretan, aztertutako ekintza edo hutsen larritasuna edo ondorio instituzionalak kontuan hartuta, honako neurri hauetakoren bat hartzea proposatuko du:

a) Ezarritako etika- eta jokabide-arau, balio, printzipio eta konpromisoak ez betetzea eragiten duen ekintza edo hutsen bat egin duen pertsona (edo pertsonak) ohartaraztea, urratze horrek interes publikoa arin kaltetzen duen kasuetarako. Pertsona horri

jakinarazi behar zaio berriz ere antzeko portaera edo hutsen bat izanez gero, kargua berehala uztea edo karguari uko egitea gomendatuko zaiola.

b) Ezarritako etika- eta jokabide-arau, balio, printzipio eta konpromisoak ez betetzea eragiten duen ekintza edo hutsen bat egin duen pertsonari (edo pertsoneri) kargua berehala uztea edo karguari uko egitea gomendatzea, urratze horrek interes publikoa larriki kaltetzen duen kasuetarako.

c) Gertakarien eta Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak egindako txostenaren berri ematea eskumena duen organoari, aplikatu behar den legerian zehaztutako moduan, espedientea irekitzeko, bideratzeko eta, hala badagokio, dagokion diziplina-zehapena jartzeko.

d) Urratzea eragin duen ekintza edo hutsa legez kontrako arau-hauste penala izan badaiteke, Zerga Ministerioa jakinaren gainean jartzea, Etika eta Gobernu Onaren Batzordea medio.

e) Huts edo arau-hausterik ez dela izan adieraztea. Kasu horretan, Kode honetan jasotako arauak hobeto betetzeko aholkuak eman daitezke.

Tokiko ordezkari-tzita-kargu publikodun eta zuzendaritzako langileentzako jokabide-printzipio orokorrak

- ☒ **Zuzentasuna.** Zerbitzari publikoek zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta harekin bat datozen printzipioekin bat eginez jardun behar du egunero; printzipio horiek dira, besteak beste, inpartzialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna eta legezketasuna. Betiere, balio-gatazkaren aurrean, bidezko erdiaren, balio egokien arteko konpromiso zuhurraren alde egin behar du.
- ☒ **Eredugarritasuna.** Erakundea herritarren ispilua denez, ez dute Udalaren irudi instituzionala kaltetu eta herritarren konfiantza hondatu dezakeen ekintza edo hutsik egin behar.
- ☒ **Ezaxola subjektiboa.** Erabakiak interes publikoaren mesederako hartu behar dira. Hartutako erabakiak erabakia hartu duen horri edo haren senide edo lagunei mesede egiten dien (edo egin diezaiekeen) edo udalerrriaren interes orokorrekarekin zerikusirik ez duen beste interes batzuk dituen susmorik ez du inork izan behar.
- ☒ **Inpartzialtasuna.** Aginpideak berekin dakartzan betekizunei jarraikiz erabakiak hartzeko prozesuan inpartzialki jokatu behar da. Jarduera hauetan inpartzialtasuna ezinbestekoa da: langileak izendatzea, kontratu administratiboak egitea, diru-laguntzak ematea edo ukatzea, arauak aplikatzea, finantza-baliabideak erabiltzea eta abar. Horretarako, interes partikularrez aparteko irizpideak aplikatu behar dira.
- ☒ **Kontuak ematea.** Hartutako erabakien eta ekintzen erantzule izan behar du beti. Hortaz, erabakiak hartzeko arrazoi objektiboak ezagutzera emango ditu, erabaki horiek azterketa politikoa egiteko eta herritarrek kontsulta egiteko moduan

azalduko ditu, ebaluatu egingo ditu eta, hala badagokio, egindako akatsen ondorioak bere gain hartuko ditu. Kontu emateak eskatzen du, beti, erabaki okerren bat hartzetik eratorritako erantzukizun politikoak edo kudeaketa-erantzunak nork bere gain hartzea.

- ☒ **Gardentasuna.** Erabakiak hartzerakoan eta jarduerak gauzatzerakoan argi eta garbi eta gardentasunez jokatu behar du: erabakiak hartzeko prozedura eta arrazoiei buruzko informazio guztia eman behar du, eta informazioak fidagarria izan behar du; halaber, erabaki horien finantza-kostuen berri eman behar du, salbu legeak kontrakoa badio. Garden jokatzek Gobernu Irekiaren (kristalezko gobernuaren) aldeko apustu sendoa egitea eskatzen du, batik bat altxortegi publikoetan eta herritarrek ordaintzen dituzten zergetan eragin ekonomiko eta finantzarioak dituzten erabakiei dagokienez. Garden jokatzek eskatzen du, orobat, administrazio-hizkera erraztea, informazioa herritarrek ulertzeko moduan ematea eta informazio hori behar bezala eskura jartzea.
- ☒ **Zintotasuna.** Zintzo jokatu behar du eta, horretarako, ezinbestekoa da funtzio publikoak gauzatzea oztopatu dezaketen interes pribatuak ezagutzera ematea eta gerta daitezkeen interes-gatazkak konpontzeko pausoak ematea. Hortaz, nahitaezkoa da zuzenbideari men egitea, prozeduren edukia eta izaera betetzea, ekonomia eta finantza eraginkorki kudeatzea, Jokabide Kode hau betetzea eta norberaren zein Udaleko beste ordezkari-tza-kargu publikodun edo zuzendaritzako langileen interes-gatazkak ezagutzera ematea.
- ☒ **Errespetua.** Herritarrak, langile publikoak, ordezkariak eta zuzendariak errespetuz tratatu behar ditu, beti eta nonahi. Beraz, ez du mespretxuzko hitzik erabili behar, gainerakoen eskubideak zaindu behar ditu, ez du inor diskriminatu behar, jendea adeitasunez tratatu behar du eta, tokiko erabakiak hartzeko prozesuetan, pertsona bakoitzaren zereginak aintzatetsi behar ditu. Atseginez tratatu behar ditu, zehazki, ordezkari politikoak, zuzendaritzako eta bestelako langile guztiak, hornitzaileak eta herritarrak.
- ☒ **Arduraz jokatzek.** Dagozkien funtzioak betetzerakoan, arduraz jokatu eta zerbitzu publikoen kalitatea sustatu behar dute.
- ☒ **Erantzukizuna.** Hartutako erabakien eta jardueren erantzule izan behar dute, eta baita zuzentzen dituzten erakundeen erabaki eta jardueren erantzule ere.
- ☒ **Berdintasuna bermatzea:** Dagozkien funtzioak betetzerakoan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunaren aldeko arauak bete eta betearaziko dituzte.

Tokiko ordezkaria den kargu publikoak bete beharreko jokabideko estandarrak

Jokabideko estandarrak, jarduteko oinarri-multzoa dira, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkaria den kargu publikoak ezinbestez bete beharrekoak. Gutxieneko eginbeharren eta beharrizanen zerrenda dira, ordezkaria den kargu publikoak kargu hori izatearen ondorioz bete behar dituen gutxieneko beharrizanak. Horien bidez, zeregin horiek udal edo tokiko erakundeko egitura politikoan duten betekizun instituzionala indartu nahi da, herritarren aurrean eraginkortasunez betetzen direla egiaztatze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkaria den karguaren jokabideak estandar hauek bete beharko ditu:

Betebehar orokorrak

- Agintaldiaren hasieran bateraezintasunen eta jardueren adierazpena eta ondare-ondasunen adierazpena egitea. Agintaldiak irauten duen bitartean, ondare-aldaketen berri eman behar dute; ondare-aldaketarik egin ez badute, agintaldiaren amaieran egin beharko dute berriz ere aitortpena.
- Pertsona guztiak errespetuz eta adeitasunez tratatzea beti eta nonahi.
- Curriculum profesionaleko eta titulazioei eta esperientziari buruzko datuak ez faltutzea eta gezurrik ez esatea, erakundeari eta herritarrei begirunea zor zaielako.
- Hirugarrenei informazio konfidentzialik edo daukan karguagatik jasotako informaziorik ez ematea, eta informazio hori gordetzea. Zeregin hori gardentasun-printzipioarekin uztartu behar da.
- Herritarren aurrean Udalaren irudia edo ospe instituzionala kaltetzeko moduan ez jokatzeko.
- Maila instituzionala bere onerako edo beste pertsona edo erakunde baten onerako edo txarrerako ez erabiltzea, salbu lege onartutako diskriminazio positiboko kasuetarako.
- Bere zereginak beste pertsona batzuk betetzen dituztenean, pertsona horiek beren onerako edo hirugarrenen on edo txarrerako erabil ez ditzaten zaintzea.
- Dagozkien zereginak betetzerakoan, kargua utzi ondorenerako abantaila profesionalen bat lortzeko neurririk ez hartzea.
- Erabaki politiko eta administratiboak hartzerakoan, erabaki horiek justifikatzen dituzten arrazoi objektiboak ematea.
- Erabakiak hartzeko prozesuan, aintzat hartzea, batetik, gai horretan bete behar den legeria; eta bestetik, erabaki zentzuzko eta eraginkorrena hartzen lagun diezaieketen eta erabaki hori justifikatzen duten iritzi, aholku, txosten eta azterlan guztiak.

- Legez kontrako jardueraren baten berri izanez gero, eskumena duten organoak jakinaren gainean jartzea.

Dagozkion erantzukizun publikoak baliatzea

- Dagozkion zereginak beteko ditu arduraz, arretaz, gardentasunez eta bere erabakien erantzule izateko borondatez.
- Ahalegina egingo du faboritismoz kutsatutako praktikak saihesteko, edo biderik ez emateko herritarrek susma dezaten pertsona edo erakunde batzuen aldeko tratua duela.
- Ez du bere karguari dagozkion eskumenik erabiliko, zuzenean edo zeharka, bere interesaren alde edo interes pribatuaren alde egiteko, edota pertsona edo talde jakin batzuen interesei onura ekartzeko.
- Bozketaren bat egin edo erabakiren bat hartzean, jendaurrean jakinarazi beharko du bere interesak kolisioan daudela interes publikoarekin. Era berean, zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala duenean, edo interesen arteko talka egon daitekeenean, aurrez adierazi egingo du eta ez du bozkatuko bozketa egitean edo erabakia hartzean.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatuko ditu, eta ez du ondasun publikorik erabiliko interes pribatuak lortzeko.
- Behar bezala bermatuko du berdintasunezko tratua emango diela herritarrei eta entitate eta erakundeei, inolako bereizkeriarik egin gabe.
- Zuzentasuna (berdintasuna) sustatuko du, eta eraginkortasunez kenduko ditu helburu hori osorik betetzeko aurkitzen dituen oztopo guztiak.
- Oro har, guztien artean onartu diren arauak eta gizarteko egiuneak gorde beharko ditu, bere jarduera publikoan eta dagozkion erantzukizunak betetzean.
- Oro har, jarduera publikoari eta dagozkien erantzukizunei dagokienez, arau eta ohitura sozialak errespetatzea.

Interesen arteko gatazkak

- Interesen arteko gatazka sortuko da interes publiko baten edo batzuen, eta beste interes pribatu edo publiko batzuen artean interferentziaren bat dagoenean, eta, horren ondorioz, betebeharrak publiko nagusia independentziaz, objektibotasunez eta alderdikierarik gabe betetzeko aukera arriskuan jartzen denean, edo estutasunean jartzeko itxura hartzen zaionean (Jospinen Komisioaren definizioa, 2012).
- Ahalegina egingo du interesen arteko gatazka oro saihesteko; ildo horretan, interesen arteko gatazka ageriko da, erabakiak hartzeko prozesu batean, pertsona batek interes pribatuen eragina egon daitekeela sumatzen duenean, eta interes horiek nolabait oztopatzen edo desbideratzen badute betebeharrak publikoak betetzeko aukera.

- Ez ditu bere eskumen instituzionalak erabiliko prozedurak arintzeko, kargak kentzeko edo hirugarren batzuei onuraren bat emateko, udalarekin zerikusirik ez duten interesek bultzatuta.
- Era berean, ez du egingo udalaren interes publikoekin, zuzenean edo zeharka, talka egin dezakeen edo tokiko ordezkariaren jarduera politikoa zuzenean edo zeharka zalantzan jar dezakeen negoziarik.
- Bere betebeharrak eta erantzukizunekin talka egiten duen –edo talka egin dezakeen– interes-gatazkaren eragina izan dezakeen kargu publikoak jendaurrean eman beharko du horren berri berehala, eta, aditzera eman beharko du –ahal dela idatziz– gatazka hori dagoela, edo, besterik ez bada ere, ustezko interes-gatazkaren inguruko zalantza azaldu beharko du. Nolanahi ere, hala interesen arteko gatazka dagoenean, nola gatazka horren inguruko ustezko zalantza pizten denean, zuhurtziazko neurri gisa, instituzioaren izen ona gordetzeko, ez du parte hartuko interes-gatazka egon daitekeela-eta susmorik arinena pizten duten erabakiak hartzeko prozesuetan.
- Alderdi politikoaren zuzendaritza-organo betearazleetan karguren bat izateak ez du eragotziko dagozkion zereginak betetzea.

Opariak eta (egon daitezkeen) onurak

- Ordezkaritza duen kargu publikoak ez du onartuko, bere kargua dela-eta, pertsona edo erakunderen batek emandako oparirik edo zerbitzurik, gizarte eta adeitasunezko ohiko usadioetatik harantz badoa. Ulertzen da ohiko usadioetatik harantz doazela 100 eurotik gorakoak. Aipatutako ohiko usadioetatik harantz doazen opariei dagokienez, opari horiek erakundearen ondarean sartu beharko dira. Nolanahi ere, uko egingo die bere etorkizuneko erabaki politikoetan eragina izan dezaketen dohaintzei, opariei eta zerbitzuei.
- Ez du onartu behar inolako sarrerarik, txartelik, loteria-zenbakirik edo zuzeneko nahiz zeharkako bestelako onurarik, ohiko, gizarteko eta adeitasunezko usadioetatik harantz badoa, edota nolabait baldintzatu ahal baditu dagozkion erantzukizunak betetzean etorkizunean hartuko dituen erabakiak. Ulertzen da ohiko, gizarteko eta adeitasunezko usadioetatik harantz doazela 100 eurotik gorakoak.
- Era berean, behar diren zentzuzko neurri guztiak hartu beharko ditu behar bezala bermatzeko bere hurbileko familia-zirkuluak ez duela jasotzen oparirik edo onurarik, pertsona edo entitatereen baten aldeko tratua izateko susmorik txikiena eragiteko moduan.

Tokiko ordezkaria den kargu publikoak beste kargu edo enplegatu publiko batzuekin edota herritarrekin duen harremana

- Udal-gobernuko kide izan ala ez, talde politikoetako kideak errespetuz eta behar den begirune instituzionalarekin tratatzea; horrek ez du esan nahi beste taldeen jarduera edo proposamenen kontrako kritika politikoa egiteko hizkera edo tonua aldatu behar direnik.
- Behar den begirunez hartuko ditu udaleko arduradun politikoak, bereziki oposizioko alderdietako kideak.
- Era berean, oposizioko alderdietako kideek behar den begirunez eta adeitasun instituzionalaz hartuko dituzte tokiko gobernuko taldeko kideak.
- Tokiko politikarien arteko harremanetan, adeitasuna eta heziketa nagusitu beharko dira beti.
- Begirunez eta arreta bereziz hartu beharko ditu udal-administrazioeko enplegatu publikoak, bereziki berak egiten dituen zereginen dagokien jarduera-arloko edo jarduera-sektorekoak diren kideak. Hortaz, ez du begirune eta adeitasun hori aldatu edo kaltetu dezakeen jokabiderik izan behar.
- Herritarrei harrera egitean, zuzentasun eta adeitasun osoz jokatu du, eta gogotsu entzungo ditu haien proposamenak, iradokizunak eta kexak.
- Herritarrek egindako eskari, iradokizun edota kexen aurrean erantzuna ematen saiatuko da beti.

Gardentasuna: informazioarako sarbidea

- Ordezkaritza-kargu publikodunek edo zuzendaritza-kargudunek nahitaez gorde behar dute sekretu profesionala. Ezingo die hirugarrenei informazio konfidentzialik jakinarazi, ezta euren kargua betetzean lortutakorik ere. Horrez gain, erakundeko jarduera publiko eta kudeaketa-jarduera guztietan gardentasunaren printzipioa aplikatzea, salbu legeak konfidentzialtasuna eskatzen duen kasuetan edo hirugarrenen eskubideak kaltetu daitezkeen kasuetan. Betiere, salbuespen horiek era murriztailean interpretatuko dira.
- Erakundea kudeatzeko egiten diren jarduerak eta jarduera politiko guztiak gardentasun oinarriaren mendean jarri beharko ditu, legeak isilpekotasuna eskatzen duenean edota hirugarren batzuen eskubideetan eragina izan dezakeenean izan ezik. Nolanahi ere, salbuespen horiek modu murriztailean ulertuko dira.
- Publizitate aktiboaren oinarria eraginkortasunez beteko du, bere instituzioetan gardentasuna bermatze aldera.
- Eraginkortasunez bultzatuko du herritarrek eta erakundeek jendaurreko informazioa eskuratzeko sarbidea izan dezaten, legeak ezartzen dituzten mugak aintzat hartuta.
- Behar bezala arrazoitutako erantzun arinak emango dizkie informazioa eskatzeko jasotzen dituen eskaerei.
- Bere udalean gobernu irekia ezartzearen alde, datuak berrerabiltzearen alde eta administrazio elektronikoaren alde egingo du.

- Herritarrek parte hartzeko finkatuta dauden bideak sustatuko ditu, bai eta Internet eta sare sozialak ere.
- Lanean arituko da administrazioa irekia eta erraztua izan dadin, eta hizkera erraza eta ulergarria erabil dezan.
- Bere zereginak betetzean, une oro babestuko ditu izaera pertsonaleko datuak.

II.- GOBERNU ONERAKO OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek jarraian agertzen diren oinarrien arabera gobernatuko dute eta gauzatuko dute beren ekintza politikoa, kudeaketa politikoa ahalik eta gehien bete ahal izateko.

Oinarri horiek etengabeko hobekuntzako helburuak dira, eta ezin izango dira alde batera utzi gobernatzeko ekintzan, udalen tipologia desberdinaren ondorioz, tamaina, antolakuntzako egitura edo eskura dauden baliabideak aintzat hartuta.

Tokiko Gobernu Onerako Oinarriak bi ataletan egituratuta daude, helburuaren arabera: alde batetik, jarduera politikoa buruzko informazioa ematea, eta, bestetik, gobernariak baliabide publikoak kudeatzea.

Gobernu Onerako Oinarriak tokiko ordezkariak duen kargu publikoaren jardueran

- Indarrean dagoen sistema juridikoa gordeko du, eta herritarren oinarrizko eskubideak bermatuko ditu.
- Herritarrek gai publikoetan eta tokiko erabaki publikoak hartzeko prozesuetan parte har dezaten sustatuko du.
- Gardentasunez jokatu du erabakiak hartzeko prozesuetan, eta herritarrei behar den informazio guztia emango die, erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan.
- Herritarren beharrezkoekin arin erantzun die, arazoak konpontzeko ditu, eta egiten dituzten eskaerak zentzuzko epean beteko ditu.
- Politika- eta gizarte-arloan eta herritarrekiko harremanetan bat etortzeko prest egongo da, eta buru argiz egingo du bitartekaritza-lana gizarteko interes desberdinen artean, gizarteko aktoreei arreta berezia eginez, batez ere, gizarte-egoerarik ahulenean daudenei.
- Berrikuntza sustatuko du erakundeetan, eta antolakuntzako egiturak eta prozedurak modernizatuko ditu.
- Udal-gobernantza azkarraren eta iraunkorraren alde egingo du.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta gizarteko kohesioa sustatuko ditu, eta era egokian kudeatuko ditu aniztasuna eta elkarbizitza.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez eta zentzuz kudeatuko ditu, eta ahaleginak egingo ditu dirurik ez xahutzeko, edo justifikatu gabeko gasturik ez egiteko, eta zorpetze iraunkorra lortzeko.

- Hartzen diren erabaki politiko eta administratibo guztien erantzule izango da, batez ere, kudeaketan dituen emaitzei begira.
- Herritarrek udalerrikoak izateko duten sentimendua sustatuko du, baliabide publikoekiko begirunea izateak duen garrantzia indartuko du, eta baliabide horien erabilera arduratsua eta iraunkorra bultzatuko du.
- Gizarte-inklusioaren alde lan egitea eta, horretarako, zerbitzuak herritarrei gerturatzea eta Bermeon zuzentasunez banatzea.
- Ingurumenaren babesa eta klima-aldaketaren kontrako eta biodibertsitatearen aldeko borroka bultzatzea.
- Zerbitzu eta atalen zereginei, era batean edo bestean jarduteko arrazoiei eta funtzionamenduari buruzko informazio-eskariei prestasunez erantzutea.
- Beste administrazio batzuekin elkarreragingarritasunean aurrera egitea sustatzea.

Gobernu Onerako Oinarriak, prestazio eta baliabide publikoak kudeatzeari begira

- **Iraunkortasuna.** Oreka zuzena bilatuko du gizarte-, ekonomia- eta ingurumen- arloko lehentasunen artean, eta herritar guztien parte-hartzea sustatuko du. Hirigintzako plangintzako erabakiak hartzean, hiri-ingurune iraunkorrak eta adimentsuak sustatuko ditu, pertsonak dituzten beharrezkin bat datozenak. Iraunkortasuna ez da ingurumen-arloa murriztu behar; aitzitik, baliabide-mota guztietara eraman behar da, baita ekonomia- eta finantza-arloetara ere.
- **Deszentralizazioa.** Tokiko autonomia indartuko du, eta, horrez gain, ahalegina egingo du erabakiak hartzeko, zerbitzuak egiteko eta baliabideak esleitzeko prozesuak lurraldeko unitate egokietan egin daitezen (barrutietan, auzoetan, etab.). Erabakiak hartzean, baliabideak esleitzean eta zerbitzuak egitean, lurraldeko deszentralizazioari jarraitzeaz gain, parte-hartze ehunaren kalitateak hazi eta hobera egin behar du.
- **Zuzentasuna.** Zuzentasunean oinarritutako politikak eta zerbitzuak egitearen alde joko du, hala helburu publikoari, nola zerbitzuen prezioari (tasei) begira; ildo horretan, tasak behar bezala egokituko ditu, herritar bakoitzak duen finantza gaitasuna aintzat hartuta. Pizgarriak jarriko dira, gizarte-egoerarik ahulenean dauden talde jakin batzuei emateko.
- **Berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen arteko egiazko eta benetako berdintasuna bermatuko da, oinarri hauek betez: tratu aldeko berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, generoko ikuspegia barne hartzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak kentzea, ordezkartza orekatua lortzea, eta era koordinatuan eta lankidetzan aritzea.

- **Eraginkortasuna.** Zerbitzuak egiteko eta gastu publikoa kudeatzeko, eraginkortasunari lotutako irizpideak hartuko dira kontuan, mota guztietako baliabideak erabiltzean. Ildo horretan, zerbitzuen kostua aurrez jakin behar da, eta helburu argiak eta kudeaketako adierazleak finkatu behar dira, zerbitzu horien kostua ebaluatu ahal izateko.
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Hala erabakiak hartzeko prozesuetan, nola administrazioko prozeduretan edota tokiko botere publikoen jardueran, gardentasunaren oinarriari jarraituko zaio. Oinarri hori publizitate aktibokoa da, eta bitarteko egokia da herritarrek informazio publikoa eskura dezaten bermatzeko, betiere, legeek finkatutako gutxieneko mugak betez.
- **Konpromiso zibikoa, eta bertako hizkuntza eta kultura eta aniztasuna babestea.** Euskara eraginkortasunez ezarriko da, eta haren erabilera erabat zabalduko da, hala tokiko administrazioarekiko harremanetan, nola udalerrri barruko gizarte-harremanetan. Euskal kulturaren adierazpide guztiak bultzatuko dira. Era berean, alderdi hauek sustatuko dira: aniztasunaren kultura, herritarren erantzukizun zibikoak, errespetuaren kultura, gatazkak era alternatiboan konpontzeko baliabideak eta bitartekaritza, bai eta gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonen (gazteak, adinekoak, etorkinak, langabeak, etab.) osatutako kolektibo edo taldeek tokiko politikan parte hartzea ere, tokiko gobernuek bere interesak, iritzia eta ikuspegiak era egokian balioetsi ahal izan ditzan erabakiak hartzeko prozesuan.
- **Segurtasuna eta babes zibila.** Herritarrek arrisku naturalen aurrean gaur egun duten kontzientzia bultzatu, eta krisialdiko egoeren kudeaketa sustatuko da; horrez gain, ingurune segurua eta osasungarria bermatuko zaie biztanle guztiei, bereziki haurrei. Hirikoa edo udalerrikoa izateko sentimendua sustatuko da; horretarako, herritarren arteko elkarbizitza eta garapena lantzeko politikak prestatuko dira, eta herritarrek gune publikoan eta gainerako auzokideekiko harremanetan dagozkien betebeharrak eta erantzukizunak har ditzaten bultzatuko da. Horrez gain, beste alderdi batzuetara hedatuko da segurtasuna, hain zuzen ere, herritarren erosotasuna eta lasaitasuna hobetzeko eta osasuna bermatzeko (kaleak eta plazak zaintzea, urak eta hondakinak tratatzea, elikagaiak kontrolatzea, etab.).
- **Elkarlana.** Administrazioaren lanetan herritarrekin eta gainerako gizarte-agenteekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzea.

III.- TOKIKO ORDEZKARIAK DIREN KARGU PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNAK ETA KONPROMISOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN KALITATE INSTITUZIONALEKO POLITIKA ABIARAZTEKO

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-taldeetako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako alkateek eta beren gobernuko taldeek erantzukizunez gidatu behar dituzte udal-gobernua eta erakundearen zuzendaritza politikoa, instituzioekin zintzo jokatu behar dute beren zereginak betetzean, eta ahalegina egin behar dute herritarrentzat ahalik eta ongizaterik handiena lortzeko, dagozkien eskumenen esparruan, eta udalerrriak eskura dituen baliabideak erabiliz.

Ondorio horretarako, konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte herritarren aurrean:

- **Instituzioa duintasunez ordezkatzea.** Alkateak (eta, harekin batera, gobernu taldeko kideek) konpromisoa hartzen du instituzioa oro har ordezkatzeko, eta ez zati bat bakarrik. Europako Jokabide Kodean jasota dagoenari jarraiki, erantzule dira tokiko herritar guztien aurrean, bai eta botoa eman ez dieten bozkatzaileen aurrean ere. Instituzioko ordezkariak eta, orobat, tokiko agintariak dira, legezketasun demokratikoaren ondorioz. Hortaz, zuzentasun eta eutsitasun bereziz aritu behar dute kargua betetzean, eta beren jokabide publikoan eta pribatuan.
- **Herritarrei eraginkortasunez komunikatzea eta gogotsu entzutea.** Udal-gobernuaren tokiko politika kalitatezkoa izan dadin, herritarren ikuspegitik, neurri handi batean, eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna izan behar da. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute eskura dituzten baliabide guztiak erabiltzeko (sare sozialak barne hartuta) herritarrekin harremanetan jartzeko, eta beren erabakiak eta, orobat, erabaki horiek hartzeko dituzten arrazoi errazak eta ulergarriak helarazteko. Horrez gain, hitz ematen dute gogotsu eta arretaz entzungo dituztela herritarren kezak, iradokizunak eta kezak, eta, era berean, arrazoiak emanez erantzungo dietela haien eskaerei, egoera dela-eta objektiboki horrela behar denean.
- **Politikak azaltzea eta helburu estrategikoak zehaztea.** Udal-taldeetako kideek hitz ematen dute helburu estrategikoak zehaztuko dituztela, horien bidez, udal-politika koherentea eta iraunkorra prestatu ahal izateko, herritarren onurarako. Politika hori bideratzeko, hiriko plan estrategikoak prestatuko dira, eta talde politiko eta gizarte- eta enpresa-arloko aktore guztiekin itunduko dira. Bestetik, epe laburragoan, aginduko planak edo gobernuko planak ere baliatuko dira. Nolanahi ere, udal-politikaren ardatz horiek ingurune aldakorraren arabera egokituko dira.
- **Politikei lehentasuna ematea eta erabakiak hartzea.** Tokiko politikaren funtsa lehentasun politikoak finkatzea da, are gehiago ekonomia- eta finantza-arloko krisialdian edo aurrekontuei eusteko egoeran egonik. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari politikoek hitz ematen dute herritarrei egiten dizkieten

zerbitzuen zorroari eutsiko diotela, betiere, ekonomia- eta finantza-arloko egoerak horretarako aukera ematen badu. Hortaz, erantzukizunez jardun beharko dute, udal-finantzen iraunkortasuna jokoan dagoenean, eta, ildo horretan, lehentasuna eman beharko diete udalerrarentzat eta herritarrentzat garrantzi handiena duten politikei (batez ere gizarte-egoerarik ahulenean dauden herritarrak aintzat hartuta). Horrez gain, erabaki korapilatsuak hartu beharko dituzte, testuingurua dela-eta hala behar denean (eta, gero, azalpen egokiak eman beharko dizkiete horiei buruz, udal-oposizioko alderdietako kideei eta herritarrei).

- **Emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea.** Tokiko gobernuko egituretako Politika arrazionalizatzeko prozesuaren ondorioz, ezinbestekoa da emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea, udalerrriak onetsitako helburu estrategikoak eta gobernuko edo aginduko planak betez.
- **Arazoei irtenbidea ematea eta gatazkak konpontzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkariak hitz ematen dute zentzuzko konponbideak bilatuko dituztela beren erkidegoan dauden gatazkak edo arazoak konpontzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek (alkateak eta beren gobernu-taldeetako kideak) "izaera politikoa duten auziak, arazoak eta gatazkak" konpondu beharko dituzte. Aitzitik, izaera hori ez duten arazoak udal bakoitzeko zuzendaritzako edo administrazioko egituretan konpondu beharko dira. Alkatea ez da "irregulartasunen kudeatzailea", eta ez du inondik ere izan behar; era berean, ez da auzo-erkidegoko arazoak leku guztietan konpontzeaz arduratu behar.
- **Beharrezkoa denean, ordezkari ematea.** Euskal Autonomia Erkidegoko alkateak hitz ematen dute garrantzi txikiagoko gaiak beste batzuen esku utziko dituztela, beren erakundearen eraginkortasuna hobetu ahal izateko, eta herritarrei zerbitzu hobek eskaini ahal izateko. Gobernuko zereginak betetzen dituen tokiko ordezkari politikoak gai garrantzitsuak hartu behar ditu ardatz gisa, eta beste batzuen esku utzi behar ditu garrantzi txikiagoko gaiak. Hala ere, ondo aztertu behar da zein pertsonaren esku utziko diren gai horiek. Izan ere, pertsona horrek beharrezkoak diren eskumenak izan beharko ditu, bere esku utzitako zereginak behar bezala bete ahal izateko, azken batean, herritarren interesa ondo bermatu ahal izateko, eta herritarren itxaropenei eta interesei hutsik ez egiteko.
- **Erantzukizunez negoziatzea.** Udaleko arduradun politikoek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udaleko finantza publikoak babesteko, edozein motatako taldeekin, oposizioko alderdietako kideekin edo instituzioekin negoziazioan aritzean. Izan ere, ez da jarrera arduratsua etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerrria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikari guztiek hitz ematen dute behar den

guztietan esango dutela ezetz, negoziazioko prozesuetan daudela, eta arrazoiak emango dituztela, ezezko guztiei buruzko datu objektiboak aurkeztuko dituztela, eta, hortaz, "ezetz positibo" (justifikatu) eta arduratsuaren alde egingo dutela.

- **Baliabide urriei lehentasuna ematea.** Aurrekontuei eusteko oraingo testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek erantzukizunez kudeatu behar dituzte udalerrietako baliabide publikoak, eraginkortasunari eta ekonomiari lotutako irizpideak erabiliz. Horren ondorioz, udal-aurrekontuak errealistak eta zehatzak izango dira, gastuari eusteko eta zerbitzuen kostua kontrolatzeko politikak ezarriko dira, aurrekontua udal-politikei egokituta egongo da, eta, horrenbestez, herritarrek ez dira zergen bidez zigortu beharko, baliabide publikoen kudeaketa txarra izateagatik.
- **Udaleko politika publikoak ebaluatzea eta gainbegiratzea.** Alkateek eta beren gobernu-taldeetako kideek hitz ematen dute beren erantzukizunaren pean osorik dauden zerbitzuak eta politikak etengabe ebaluatu eta gainbegiratu dituztela, horrela, hasieran aurreikusitako helburuetan eta kostuetan inolako desbideratzerik egon ez dadin. Era berean, galarazi egingo dute desbideratze horiek herritarren kalterako izatea. Zeregin horiek betetzeko, beren talde teknikoak eta aholkulari teknikoak hartuko dituzte oinarritzat.
- **Sareak eratzea eta gobernu irekia bultzatzea.** Udal-politikaren arduradunek hitz ematen dute gardentasuna eta gobernu irekia lortzeko politika garatuko dutela. Era berean, sareak eratzen saiatuko dira, eta, ildo horretan, informazioa eta sinergiak trukatu dituzte, tokiko gobernuaren garapena sustatzeko, eta laguntza emateko zerbitzuak egitean kostuak gutxitu eta konponbideak partekatu ahal izateko. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako gobernu-taldeen tokiko gobernantza adimentsua sustatuko dute, eta, horretarako, hainbat formula baliatuko dituzte, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzea sustatzen duten, hurbiltasunari lotuta dauden eta hausnarketa pizten duten formulak, hartara, herritarrek instituzioengan duten konfiantza indartu ahal izateko.
- **Gobernuko taldeetako edo beren zuzendaritza- edo administrazio-taldeetako buru izatea.** Alkateek –bereziki, baina gobernu taldeetako kideek ere bai– hitz ematen dute gehienbat gogatzeko ahalmenean eta eredugarritasunean oinarrituta dauden lidergoak bultzatuko dituztela beren udaletan. Horrela, profesionaltasuna garatuko dute, proiektu jakin batean lanean ari diren zuzendaritzako taldeen eta enplegatuen arteko kohesioa indartuko dute, laguntza emango dute beren erakundeetan jarduten duten pertsonen emoziozko garapenari eta orekari eusteko, testuinguruan duten jardura erraztuz, eta, horrez gain, konpentsatzeko eta pizgarriak emateko sistemak baliatuko dituzte. Ondo egindako lidergoa bide baliagarria izango da herritarrei egiten zaizkien zerbitzu publikoak hobetzeko.

- **Adostasuna bilatzea.** Agintaldian, gobernu-taldea talde politiko guztiekin helburuak ahal bezainbeste adosten saiatuko da, herritarren mesederako.

Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Euskal Autonomia Erkidegoko udal-oposizioko alderdietako kideek, eta, era berean, udal-gobernua osatu gabe hari laguntza ematen dioten taldeetako kideek erantzukizunez eta modu eraikitzailean egingo diote oposizio politikoa gobernuko taldeari. Horretan aritzean, zintzotasunez jokatuko dute instituzioekin, eta ahalik eta ongizaterik handiena eskainiko diete herritarrei, dagozkien eskumenen esparruan eta udalak eskura dituen baliabideen arabera.

Oposizioko alderdien zeregin instituzionala betetzeko, udal-gobernuaren ekintza politikoki kontrolatu behar da, eta proposamen bideragarriak eta iraunkorrak eskaini behar zaizkie herritarrei, gobernurako benetako hautabidea izateko.

Ondorio horretarako, udal-oposizioko alderdietako kideek konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte beren gain, herritarren aurrean:

- **Instituzioa duintasunez ordezkatzeta.** Oposizioko kideek konpromisoa hartzen dute instituzioa duintasunez ordezkatzeko, parte hartzen duten ekitaldi, zeremonia edo jarduera instituzional guztietan. Instituzioko ordezkariak dira, hautestontzietan lortu duten legezketasun demokratikoaren bidez. Era berean, hitz ematen dute zintzotasunez beteko dituztela dagozkien zeregin publikoak, eta zuzentasunez eta eutsitasunez arituko direla karguan, eta jokabide publikoan eta pribatuan. Nolanahi ere, zuzentasun instituzionalaz arituko dira, beren udaleko gobernu taldearekin edo gehiengoarekin harreman politikoak eta instituzionalak izatean.
- **Herritarren eskaerak eraginkortasunez bideratzea eta jakinaraztea eta gogotsu entzutea.** Udaleko oposizioak hitz ematen du erantzukizunez bideratuko dituela herritarren eskaerak, era horretan, balioetsi ahal izateko, eta, hala behar denean, onartzeko. Ildo horretan, eraginkortasunez arituko dira, eta gogotsu eta arretaz entzungo dituzte herritarren kezkek, iradokizunak eta kexak. Horrez gain, hitz ematen dute ez dutela objektiboki arrazoizko justifikaziorik ez duen eskaerarik azalduko, hain zuzen ere, udalari eta herritarrei eragingo dizkieten finantzazko kostu haziak direla-eta onartzeko ezintasun materiala sorraraz dezaketen eskaerak.
- **Lankidetzan aritzea udaleko helburu estrategikoak zehazteko.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute modu onuragarrian eta eraginkorrean arituko direla elkarlanean, gobernu taldearekin batera, udalerriko etorkizuna marrazteko lagungarriak izan daitezkeen helburuak zehazteko,

horrela, helburu horiei jarraiki, udal-politika koherentea eta iraunkorra egin ahal izateko, herritarren onurarako. Elkarlaneko politika horren ardatz nagusia plangintza estrategikoko tresnak izango dira; eta, hala dagokionean, behar den moduan egokituko dira, inguruabarrak edo testuinguruak hala eskatzen badute. Era berean, gobernu taldeekin itunak edo akordioak egiten saiatuko dira, aginduko planen edo gobernuaren planen jarduteko oinarritzko ildoak zehazteko, eta, era horretan udalaren eta herritarren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

- **Politika batzuei lehentasuna ematea, udaleko finantza publikoek udalak eskainitako zerbitzu-zorroaren arlo guztietan esku hartzeko aukerarik ematen ez dutenean.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute, gobernu taldea kontrolatzeko eta proposamenak egiteko eta zereginak betetzean, udalerriko finantza publikoen egoera hartuko dutela kontuan bereziki, eta, egoera hori nolakoa den, lehentasunak finkatuko dituztela, beren programa politikoari jarraiki, haien ustez une bakoitzean ezinbestekoak direnak hautatuz, herritarren beharrezan aurre egiteko. Hortaz, baliabide urriak hartuko dituzte aintzat bereziki, hala behar denean; bestalde, zerbitzuen zorroa finantzazko koordinatu horien arabera doitu edo egokituko dute, eta, horrela, saihestu egingo dute udalerriko finantzak ito daitezen, eta finantzako betebeharrak etorkizuneko belaunaldien esku gera daitezen.
- **Udal-gobernuaren ekintza kontrolatzea eta hainbat politika publikoren kudeaketako helburuen eta emaitzen jarraipena egitea.** Oposizioko alderdiek duten zeregin instituzional nagusietako bat da gobernuaren ekintza kontrolatzea, eta hautabide sinesgarria izatea hurrengo hauteskunde-prozesuei begira. Esparru horretan, oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute udal-politikaren jarraipen eraginkorra egingo dutela, behar adina denbora emango dutela zeregin horiek garatzen, eta zorrotz kontrolatuko dituztela gobernu taldearen ekintzak udal-politika publikoaren hainbat esparrutan dituen helburuak eta emaitzak. Zeregin horiek osorik gauzatzeko, udal-gobernuak tresna guztiak jarriko ditu oposizioaren esku, eta informazioa jasotzeko sarbidea erraztuko dio, indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraiki.
- **Arazoei irtenbidea emateko eta gatazkak konpontzeko laguntza ematea.** Oposizioko alderdietako tokiko ordezkariak hitz ematen dute laguntza emango dutela, gobernu taldearekin batera, erkidegoak dituen gatazka edo arazo guztiei zentzuzko irtenbidea aurkitzeko. Arazo eta gatazka horien kudeaketaren azken erantzukizuna, jakina, udaleko gobernu taldearena izango da. Hala ere, oposizioko alderdietako kideek bitartekotza- eta kontrol-lana egingo dute, eta, horrenbestez, aukerak bilatuko dituzte kostu publikoak gutxitzeko eta, aldi berean, kasu bakoitzean dauden interes publikoak eta pribatuak zentzuz betetzeko.

- **Erantzukizunez negoziatzea.** Oposizioko udal-alderdietako arduradun politikoeek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udalaren finantza publikoen iraunkortasuna babesteko, gobernu taldearen edo bestelako erakundeen edo herritarren aurrean negoziatzeko prozesuetan aritzean. Era berean, onartzen dute ez litzatekeela jarrera arduratsua izango etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerrria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute negoziazioko prozesu guztietan erantzukizunez negoziatzeko, eta era esplizituan justifikatzeko zein arrazoiengatik hartzen duten jarrera jakin bat, era horretan, herritarrek horren berri izan dezaten eta, hala behar denean, balioetsi dezaten.
- **Erantzukizunez parte hartzea udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Baliabide urriei lehentasuna ematea.** Aurrekontuari eusteko egungo egoeran, Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako politikariek konpromisoa hartzen dute erantzukizunez parte hartzeko udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Ildo horretan, elkarguneak bilatu, eta helburu errealistak zehaztuko dituzte, udalerrri bakoitzak dituen baliabide publikoen eraginkortasun eta ekonomia arloko irizpideei jarraiki. Oposizioko alderdietako kide gisa egiten duten lana aurrekontuari egokituko zaio, udalerrriak finantza iraunkorrak izan ditzan, horrela, etorkizuneko udalaren jarduera arriskuan ez jartzeko, eta, era berean, herritarrak zergen bidez ez zigortzeko.
- **Gobernu irekia eta udal-gardentasuna bultzatzen laguntzea.** Udal-oposizioko alderdietako arduradunek hitz ematen dute gogotsu arituko direla lankidetzan, gardentasuna eta gobernu irekia lortzeko politika garatzeko. Era berean, sareak eratzen saiatuko dira, eta, ildo horretan, informazioa eta sinergiak trukatu dituzte, laguntza emateko zerbitzuak egitean kostuak gutxitu eta konponbideak partekatu ahal izateko. Oposizioko alderdietako kideek tokiko gobernantza adimentsua eta herritarrek parte hartzeko dituzten tresnak bultzatuko dituzte, dagozkien zereginak betetzen, herritarrek instituzioengan duten uste ona indartze aldera.

IV. IRUZURRARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Iruzurrari aurre egiteko arreta berezia merezi duten arloak

Bermeoko Udalak iruzurrari aurre egiteko azken urteetan hartutako neurriei jarraipena emanda, hona arlo hauei arreta berezia ipiniko zaie:

- 1.- Kontratazioa.
- 2.- Diru-laguntzak.
- 3.- Enplegatutako publikoen aukeraketa.

Kontratazio arloan iruzurrari aurre egiteko neurriak

Kontratazio arloan, neurri zehatz hauek ezarri eta beteko dira, iruzurrari aurre egiteko:

1. Kontratazio mahaietan ez dute politikoez parte hartuko
2. Interes gatazkarik ez edukitzearen zinpeko aitorpena sinatu beharko dute espedienteetan parte hartzen duten Alkate eta zinegotzi guztiek, hala nola, erabakiak hartzen dituztenek.
3. Zinpeko aitorpena sinatzeko betebeharra duten zinegotzi guztiek, egoera aldatu bezain laster, horren berri eman beharko dute, idatziz, eta kontratazio espedienteetan jasota utziko dute.
4. Zinpeko aitorpena sinatzeko betebeharra duten Alkate eta zinegotziek interes gatazkarik ez daukatela egiaztatzeko, datu base publikoak erabiliko dira, hala nola, merkataritza-erregistroak, Euskadiko eta Estatuko Kontratazio Publikoko Plataformak, sektore publikoko lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak (bai Estatukoa bai Autonomia-Erkidegokoa), eta egon daitezkeen antzeko erregistroak.
5. Iruzur susmoa eduki edo ustezko irregulartasunik ikusiz gero, horren berri emateko honako helbidea erabiliko da: etikabatzordea@bermeo.eus.
6. Bermeoko Udalak Next Generation EB funtsak kudeatzeko onartuta daukan Iruzurraren aurkako neurrien Plana bete beharko da. Funts horiekin lotutako kontratazio espediente guztietan, derrigor bete beharko da eta, funts horiekin lotura ez duten 5.000.000 eurotik gorako kontratazio espedienteetan ere, bete egin beharko da, iruzurrari aurre egiteko praktika on moduan.

Diru-laguntzen arloan iruzurrari aurre egiteko neurriak

Udalak ematen dituen diru-laguntza espedienteetan, neurri zehatz hauek ezarri eta beteko dira, iruzurrari aurre egiteko:

1. Interes gatazkarik ez edukitzearen zinpeko aitorpena sinatu beharko dute espedienteetan parte hartzen duten Alkate eta zinegotzi guztiek, hala nola, balorazio mahai eta batzordeetan parte hartzen dutenek eta erabakiak hartzen dituztenek.
2. Zinpeko aitorpena sinatzeko betebeharra duten Alkate eta zinegotzi guztiek, egoera aldatu bezain laster, horren berri eman beharko dute, idatziz, eta diru-laguntza emateko espedienteetan jasota utziko dute.
3. Zinpeko aitorpena sinatzeko betebeharra duten Alkate eta zinegotziek interes gatazkarik ez daukatela egiaztatzeko, datu base publikoak erabiliko dira, hala nola, merkataritza-erregistroak, Elkarteen Erregistroak, sektore publikoko lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak (bai Estatukoa bai Autonomia-Erkidegokoa), eta egon daitezkeen antzeko erregistroak.
4. Iruzur susmoa eduki edo ustezko irregulartasunik ikusiz gero, horren berri emateko honako helbidea erabiliko da: etikabatzordea@bermeo.eus.

Enplegatuen publikoen aukeraketa arloan iruzurrari aurre egiteko neurriak

Enplegatu publikoak aukertzeko udalak izapidetzen dituen espedienteetan, neurri zehatz hauek ezarri eta beteko dira, iruzurrari aurre egiteko:

1. Interes gatazkarik ez edukitzearen zinpeko aitortpena sinatu beharko dute erabakiak hartzen dituzten Alkate eta zinegotziek.
2. Zinpeko aitortpena sinatzeko betebeharra duten Alkate eta zinegotzi guztiek, egoera aldatu bezain laster, horren berri eman beharko dute, idatziz, eta aukeraketa prozesuko espedienteetan jasota utziko dute.
3. Nork edo nork iruzurra gertatu dela jakin edo susmoa edukiz gero, lehenbailehen horren berri eman beharko du, idatziz, eta aukeraketa prozesuko espedienteetan jasota utziko du, prozesuan parte hartzen duen zinegotzi edo enplegatua bada. Prozesuan parte hartzen ez duten zinegotzi edo enplegatuen kasuan, etikabatzordea@bermeo.eus helbidera bidaliko dute horren inguruko informazioa.
4. Zinpeko aitortpena sinatzeko betebeharra duten Alkate eta zinegotziek interes gatazkarik ez daukatela egiaztatzeko, datu base publikoak erabiliko dira, hala nola, udal errolda, merkataritza-erregistroak, Elkartearen Erregistroak, sektore publikoko lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialak (bai Estatukoa bai Autonomia-Erkidegokoa), eta egon daitezkeen antzeko erregistroak.
5. Iruzur susmoa eduki edo ustezko irregulartasunik ikusiz gero, horren berri emateko honako helbidea erabiliko da: etikabatzordea@bermeo.eus.

V. JOKABIDE ETA GOBERNU ONERAKO KODEA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Ondorio orokorrak

Jokabide Kodea ez betetzearen ondorio orokorrak hauek izango dira:

1.-Zinegotziari dagokionez:

- a) Batera ezintasun kasuren bat ematen denean, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 EDko 10. artikuluan araututakoa jarraituko da.
- b) Argitze espedientea zabaltzeko proposamena bideratzen bada, eta, emaitzaren arabera, zentsura-mozioa aurkezteko, gaitzespena egiteko, edo kargua uzteko eskatzeko proposamena egingo zaio Osoko Bilkurari, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 EDko 104. eta hurrengoko artikuluetan, eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 197. artikuluan eta erlazionatutakoetan araututakoari jarraituta.
- c) Urratzea eragin duen ekintza edo hutsa begibistako arau-hauste penala izan badaiteke, Zerga Ministerioa eta Fiskaltza jakinaren gainean jartzea, Prozedura Kriminalaren Legearen 262. artikulurekin bat.

2.- Espedienteari dagokionez:

- a) Ez betetzeak espedienteetan izandako ondorioak aztertu ondoren, egintzaren bat deuseza dela ikusiz gero, egintza zehatz horretara arte atzera egin beharko da espedienteetan, eta deusezak diren egintzak errepikatu beharko dira.

b) Espedientea amaituta badago, erabakiaren deseztasuna aldarrikatzeko, ofiziozko berraztertze prozedura izapidetuko da, hala badagokio.

Ondorio bereziak

Jokabide Kodea ez betetzearen ondorio bereziak hauek ere izango dira:

1. Kontratazio, diru-laguntza eta enplegu publikoen aukeraketa arloko espedienteetan:
 - a) Zinpeko adirazpena sinatu nahi ez duten zinegotziei, argitze espedientea zabaltzeko proposamena bideratuko da, eta mota horretako espedienteetan erabakiak hartzeko ahalmen eta delegazioak kenduko zaizkie.
 - b) Bermeoko Udalak Next Generation EB funtsak kudeatzeko onartuta daukan Iruzuraren aurkako neurrien Planean jasotako bestelako ondorioak aplikatuko dira

VI. ONDORIOAK APLIKATZEKO PROTOKOLOA

Ondorio orokorrak

1.- Argitze espedienteak zabaltzea: ez betetzea edo urratzea egon bada, edo horren susmoa balego, argitze espedientea zabaltzeko proposamena bideratuko zaio organo eskudunari.

Jarraituko den prozedura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legean araututakoa izango da.

Espediente hauen zabaltzearen eta amaierako ebazpenaren berri emango zaio Etika eta Gobernu onaren Batzordeari, eta amaierako ebazpenaren berri emango zaie udal taldeetako bozeramaileei ere.

2.- 4.1.c) ataleko kasuan, Prozedura Kriminalaren Legearen 262. artikulua erabera jardungo da.

3.- Deusezak diren egintzak deuseztatu eta atzera egitea: deuseza izan daitekeen egintzaren berri edukitzerakoan, Etika eta Gobernu onaren Batzordeak, egintza ofizioz berrikusteko, errebozkatzeko edo zuzentzeko espedientea zabaltzeko proposatuko dio eskumendun organoari. Eskumendun organoak dagokiona erabakiko du ekintza horien ondorioak kontuan izanik. Eta behin dagokion erabakia hartuta, ebazpenaren berri emango dio Etika eta Gobernu onaren Batzordeari.

4.- Espedientearen instruktoreak, hala dagokionean, balio gabetutako egintzak berriro egin beharko ditu.

Ondorio bereziak

1.- Espedienteetan erabakiak hartzeko ahalmen eta delegazioak kentzea: zinegotziari erabakiak hartzeko ahalmen eta delegazioak kentzea proposatuko du Etika eta Gobernu onaren Batzordeak, zinegotziren batek sinatu beharreko zinpeko aitortpena sinatzeari uko egin diolaren berri badauka.

Proposamena, erabakia hartzeko eskumendun organoari helarazio dio eta, honek, egokia den erabakia hartuko du, interesdunari 10 laneguneko entzunaldia eman eta gero.

Ebazpena hartzeko espedientea, izapidetuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legearen arabera, eta emaitzaren berri emango zaie udal taldeetako bozeramaileei eta Etika eta Gobernu onaren Batzordeari.

2.- Deuseztatutako egintzaren ondorioz, eskumenen aldaketa onartzea: deuseztatutako egintza burutzea agintariak agindu bada, eta horretan errua edo zabarkeria dagoela antzeman balu Etika eta Gobernu onaren Batzordeak, espediente horretarako eskumena kentzea eta, egoki ikusten bada, beste zinegotzi bateri delegatzea proposatuko dio eskumendun organoari.

Kasu honetan, interesdunari 10 laneguneko entzunaldia eman eta gero hartuko da erabakia, eta udal taldeetako bozeramaileei eta Etika eta Gobernu onaren Batzordeari informatuko zaie.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 Legearen xedapenak jarraituko dira erabakiak hartzeko prozeduran.

3.- Arau-haustea egin duen agintariaren espedienteak aztertzea: arau-haustea egin duen agintariak erabakitako espedienteak aztertuko dira, aurretik horrelako arau-hausterik egin duen aztertzeko. Emaitza baiezkoa balitz, kode honetan jasotakoak ondorioak aplikatuko dira, preskripzio epeek horretarako bidea emango balute.

4.- Bermeoko Udalak Next Generation EB funtsak kudeatzeko onartuta daukan luzurraren aurkako neurrien Planean jasotakoak izapidetzeko proposamena, Etika eta Gobernu onaren Batzordeak egingo dio eskumendun organoari, horrelako egoeren berri edukiko balu eta, izapidetza, 39/2015 Legearen arabera egingo da.

Hartutako ebazpena Etika eta Gobernu onaren Batzordeari jakinaraziko dio.

5.- Egintzak eta emaitzak Etika eta Gobernu onaren Batzordearen txostenean jasotzea: atal guzti honetan aipatutako ondorioak, Etika eta Gobernu onaren Batzordeak urtero egingo duen ikuskapen-txostenean jasoko dira, konfidentzialak diren datuak babestuta.

VII. BANAKOEN ATXIKIMENDUA

- Dokumentuarekiko atxikimendua, ordezkari politiko guztientzat eta, hala badagokio, udal-erakunde instrumentaletako goi-zuzendaritzako kontratuen titularrentzat, berariazkoa eta banakakoa izango da; eta gobernu-erantzukizunik ez duten ordezkari politikoentzat, berriz, borondatezkoa.
- Atxikimendua dokumentuari erantsitako atxikimendu-adierazpenaren bitartez formalizatuko da.
- Udalean gobernu-erantzukizunak dituzten ordezkari politiko eta udal-erakunde instrumentaletako goi-zuzendaritzako kontratuen titular berriak izendatu edo aukeratuz gero, karguaz jabetu aurretik dokumentuarekiko atxikimendua adierazi eta formalizatu beharko dute, banan-banan, berariaz eta idatziz. Kargua hartu

beharririk ez badute, izendatu aurretik formalizatu beharko dute banako atxikimendua.

- Horretarako formalizatutako dokumentuak Udaleko Idazkari Nagusiak gordeko ditu.
- Kodearekiko banako atxikimendua formalizatzen dutenek Kodean jasotako edukiaren, asmoaren eta muinaren arabera jokatu beharko dute beti.

VIII. BERMEOKO UDALAREN ETIKA ETA GOBERNU ONAREN BATZORDEA

Hauek izango dira Batzordeko kideak:

- Alkatea, zeina batzordeburua izango den.
- Udaleko idazkari nagusia
- Administrazio Orokorreko teknikaria
- Langileria saileko teknikaria

Horretaz gain, beharrezkoa den kasuetan bestelako aholkulariek, teknikariek edo politikariek ere parte hartu ahal izango dute

Hauek izango dira Batzordearen zereginak:

- Kode honetan ezarritako aurreikuspenei buruzko oharrak, kontsultak eta iradokizunak ez ezik, aurreikuspenak moldatzeko proposamenak ere jasotzea.
- Kodearen hartzaileek eta beste edozein instantziak Jokabide eta Gobernu Onaren Kodearen aplikazioari buruz egindako kontsultak erantzutea.
- Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideak bete ez direlako egindako kexak eta salaketak jasotzea eta dagozkien izapideak bideratzea.
- Kodea zenbateraino betetzen den jakiteko, urtero ikuskapen-txosten bat egitea. Dokumentu horretan aholkuak eman daitezke. Txostenaren ondorio eta aholkuak publikoak izango dira.

Etika eta Gobernu Onaren Batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez; horretarako, batzordeburuak agindua eman eta Idazkaritza sailetik deialdia egingo da.

Hala ere, behar adina bilera egin ditzakete, jorratu beharreko gaien izaeraren eta premiaren arabera.

Etika eta Gobernu Onaren Batzordeko kideek dagozkien zereginak betetzerakoan jasotako informazio guztia isilean gordeko dute; bereziki, aztertutako gertakariak,

egindako ikerketa eta deliberazioen eta hartutako erabakien edukia, eta datu pertsonalak.

Etika eta Gobernu Onaren Batzordearen erabaki eta txostenak publikoak izango dira, konfidentzialtasunaren betebeharra hausten ez den neurrian. Horrek ez du esan nahi boto partikularrik adierazi ezin denik.

Batzordeko kideek, Kode honetan jasotakoa egoki betetzen ez badute, edo, edozein arrazoi dela medio, Batzordean parte hartu ezingo balute, erregimen honen arabera ordezkaturko dira:

- Alkatea: alkateordearen bidez.
- Idazkari nagusia: Gaikuntzadun funtzionario baten bidez
- Administrazio orokorreko teknikaria: Beste administrazio orokorreko teknikari baten bidez.
- Langileria teknikaria: administrazio orokorreko teknikari baten bidez.

I. E R A N S K I N A

BERMEOKO UDALAREN JOKABIDEARI, GOBERNU ONARI ETA KALITATE INSTITUZIONALAREKIKO KONPROMISOARI BURUZKO KODEARI ATXIKITZEKO ADIERAZPENA

Sinatzaileak, Udalbatzak(e)an onetsitako Jokabideari, gobernu onari eta kalitate instituzionalarekiko konpromisoari buruzko Kodearen edukiari jarraikiz, aitortzen du:

1. Dokumentu honen goiburuan aipatu Kodearen ale bat duela.
2. Kodea irakurri duela, haren eduki osoari atxiki zaiola eta Kodean zehaztutako printzipio eta betekizun guztiak betetzeko konpromisoa hartu duela.
3. Onartzen dituela, batetik, Kodea ezagutzera ematea eta aplikatzea errazteko konpromisoa; eta bestetik, Kodeari atxikitzeak berekin dakartzan betekizun guztiak.

Eta horrela jaso gera dadin eta dagozkion ondorioetarako, adierazpen hau sinatu du, Bermeon, 20...(e)koren (e)an.

II. ERANSKINA

KONTSULTAK ETA SALAKETAK AURKEZTEKO MODUA

Ondoren aipatzen diren bideak erabili ahalko dira kontsultak eta salaketak aurkezteko.

- Helbide elektronikoa: etikabatzordea@bermeo.eus
- Egoitza elektronikoa: www.bermeo.eus

- Posta-helbidea:

Idazkaritza saila
Irakaskintza kalea 14-16
48370 Bermeo

- Berhazen
- 39/2015 Legearen 16.4 artikulua erabiliz